



ELEKTRARIDE

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

ElektraRide enpresa sortzerakoan gizartearentzat lagungarria izango den zerbitzu bat eskaini nahi dugu, horregatik zerbitzu honen eskaintza 16 urtetik gorako hiritar guztientzat bideratuta dago. Eskaini nahi dugun zerbitzua patinete elektrikoak dira, edonork alokatzeko aukera izan dezan, horrekin batera, gazteek eta helduek erabiliko dutela aurreikusten dugu. Oreretan hiritarrek leku batetik bestera mugitzerakoan erreztasuna eduki ahal izateko eta zerbitzu publikoaren ordutegiaz ez kezkatzeko sortu nahi dugu hau. Gainera, aipagarria da gure patinete elektrikoak eguzki-plaken bidez kargatuko direla, honek klima aldaketak saihesten lagunduko du eta jasangarria izango da. Gure zerbitzua erabiliko duten bezeroen ezaugarriak honako hauek dira: Garraio propioa, izan ere, beste garraio publikoak partekatu egiten dira. Bestetik, garraio publikoaren ordutegiarekin bat egiten ez dutenenak edota leku batera iristeko presa dutenak. Baita ere, eguzki-plaken bidez kargatuko direla kontuan izanda, klima aldaketaren arazoarekin lagundu nahi dutenak.

Merkatu motak aztertu eta gero, esan dezakegu gure merkatua merkatu masiboa dela, izan ere, nahiko merkatu zabala da, nahiz eta gero bezero bakoitzak gure zerbitzua behar desberdinetarako erabili denek dute mugikortasunaren premia.

Laburbilduz, gure zerbitzua merkatu masibo batera bideratuko dugu eta beste merkatuak baztertuko ditugu, ez dutelako gurekin bat egiten. Aurretik aipatutako ezaugarriak dituzten bezeroentzat bideratuta egongo da, batez ere gazte eta helduentzat.